
ATAL TEORIKOA

Aurrekariak, Marko teorikoa, *framework*, bibliografiaren errebisioa

Saioaren helburuak

- Lan akademikoen atal teorikoak sortzeko oinarrizko trebetasunak eskuratzea




Ikerketa bati ekin aurretik gai horri buruz zer esan eta egin den ezagutu behar dugu.



- Gure ikerketa nola diseinatu erabakitzeko
- Gure ikuspuntua zehazteko

- Gai horren inguruan orain arte egin denaren berri eman
- Kontzeptuak argitu eta kokatu
- Ikerketa testuinguruan kokatu



Zer?


- Gai horri buruzko bibliografia aurkitu
- Irakurri
- Irakurri bitartean, baliagarri izan dakigukeena gorde
- Intereseko dokumentazio gehiago berreskuratu bibliografiatik
- Informazio guztia antolatu eta atal teorikoa osatu



Nola?

-- ADITUEN AHOTSEKIN.


Gai bati buruz idatzizko lan egin behar dugu eta horretarako jatorrizko testu batetik ideiak hartu nahi ditugu.
Jokabide hauetako zein da egokia?



Besteen ideiak erabiltzen:

1. Testuko zenbait hitz eta esaldi aldatu baina egitura orokorra eta hiztegia jatorrizko testuan bezala mantendu.
2. Zenbait iturritatik esaldi motzak hartu eta horiek guztiak elkartu zure hitz batzurekin.
3. Jatorrizko iturritik paragrafo bat zuzenean kopiatu, inolako aldaketarik egin gabe.
4. Paragrafo bat hartu eta kopiatu, aldaketa txiki batzuk eginez. Adibidez, hitz batzuk antzerako esanahia daukaten beste hitz batzurekin aldatuz.
5. Testu-liburu batetatik edo aldizkari batetatik artikulu bat kopiatu eta zuk egindako lan bat izan balitz bezala entregatu.
6. Paragrafo bat hartu eta erabili jatorrizko iturriko esaldi batzuk, beste esaldi batzuk ordenaz aldatu eta beste esaldiren bat kanpoan utzi.
7. Paragrafo bat parafraseatu: paragrafoa berridatzi baina aldaketa batzuk egin hizkuntza, antolaketa eta xehetasunetan, eta zeure adibide propioak sartu.
8. Paragrafo bat komatxoen artean idatzi eta iturria aipatu.
9. Beste idazle baten pasarte bat berridatzi eta zeure lana izan balitz bezala aurkeztu.
10. Testu batetatik hitz edo esaldi bat hartu, modu horretara oso ondo adierazita dagoelako.
11. Beste autore batek erabili duen antolaketa eta argudioak eraikitzeko modua erabili.

Using English for Academic Purposes:



Horri nola deitzen zaio?

PLAGIOA

Erantzun zuzenak

4 testua
Zein urtetakoa da ideia hori?
1997. urtekoa.


Zergatik agertzen da orrialdearen zenbakia urtearen segidan?
1997an Garcíak argitaratutakoa hitzez hitz sartu delako testuan.

5 testua
Zientzietako ikasleen ikusmoldeak nork ikertu ditu?
Cumhur eta al.ek (2015) eta Trumperrek (2006).

2015. urteko ikerketa hori nork egin zuen?
Cumhur eta bere kideek. Guztira 3 autore edo gehiago badira, testuan aipatzen diren lehen aldian abizen guztiak idazten dira eta handik aurrera lehenengoarena eta "et al." bakarrik. Guztira 6 autore edo gehiago badira hasieratik lehenengoaren abizena eta "et al." idazten dira (APA arauen 6. edizioaren arabera).

Zuzeneko aipuak eta Zeharkako aipuak

Hitzez hitz VS Parafrasia



Identifikatu modu batekoak eta bestekoak

1. Jorgensen-ek (2012) dio elebitasuna eta eleaniztasunaren arteko aldea lauso samarra dela, elebitasunak tradizionalki bi hizkuntzari begiratu izan dion arren, zenbait kasutan bi hizkuntza baino gehiago ere kontuan hartu dituelako.

2. Cenoz eta Gorter-ek (2012) eleaniztasuna ikertu eta irakasteko erabilgarria den propospamen bat egin nahi izan dute: «*Focus on Multilingualism* looks at the whole linguistic repertoire and the relationships between the languages when conducting researhc, teaching, or assesing different languages» (360. or.).

3. Baron-ek (2003) esaten duenez, ezin uka daiteke jendeak interneten erabiltzen duen hizkuntzaren zenbait ezaugarri ahozko eta idatzizko hizkuntza tradizionalean txertatzen ari direla.

4. Martinez de Lunak (2001) dioenez: «Euskal Herriko gaztetxoen hizkuntza egoera aztertzeko eredu orokorra oinarri hartuta, hizkuntza bat erabiltzeko beharrezkoa da hainbat dimentsiotako faktoreak kontuan hartzea» (98. or.).

5. Alberdiren arabera (2008): «elebitasuna munduko ia estatu guztietan dago presente, jendarteko geruza guztietan eta adin-talde guztietan» (43. or.).

6. Varnhagen eta kideen (2010) ikerketak erakutsi du, prentsak eta gurasoek uste izan dezaketenaren aurka, ortografia gaitasuna ez dagoela erlazionatuta berehalako mezuetan erabiltzen duten hizkuntzarekin.

1. Jorgensen-ek (2012) dio elebitasuna eta eleaniztasunaren arteko aldea lauso samarra dela, elebitasunak tradizionalki bi hizkuntzari begiratu izan dion arren, zenbait kasutan bi hizkuntza baino gehiago ere kontuan hartu dituelako.

P

2. Cenoz eta Gorter-ek (2012) eleaniztasuna ikertu eta irakasteko erabilgarria den proposamen bat egin nahi izan dute: «*Focus on Multilingualism* looks at the whole linguistic repertoire and the relationships between the languages when conducting researhc, teaching, or assesing different languages» (360. or.).

H

3. Baron-ek (2003) esaten duenez, ezin uka daiteke jendeak interneten erabiltzen duen hizkuntzaren zenbait ezaugarri ahozko eta idatzizko hizkuntza tradizionalean txertatzen ari direla.

P

4. Martinez de Lunak (2001) dioenez: «Euskal Herriko gaztetxoen hizkuntza egoera aztertzeko eredu orokorra oinarri hartuta, hizkuntza bat erabiltzeko beharrezkoa da hainbat dimentsiotako faktoreak kontuan hartzea» (98. or.).

H

5. Alberdiren arabera (2008): «elebitasuna munduko ia estatu guztietan dago presente, jendarteko geruza guztietan eta adin-talde guztietan» (43. or.).

H

6. Varnhagen eta kideen (2010) ikerketak erakutsi du, prentsak eta gurasoek uste izan dezaketenaren aurka, ortografia gaitasuna ez dagoela erlazionatuta berehalako mezuetan erabiltzen duten hizkuntzarekin.

P

Erantzun zuzenak

1 parafrasia:
Ez da egokia.
Jatorrizko testuko ideien interpretazioa ez da zintzoa eta testuan iritzi pertsonala sartu da. Eta ez da jatorrizko iturriaren aipurik eta erreferentzia bibliografikorik sartu.

2 parafrasia:
Ez da egokia.
Ideia zuzen interpretatu da baina ez da jatorrizko iturriaren aipurik eta erreferentzia bibliografikorik sartu.

3 parafrasia:
Ez da egokia.
Ideia nahiko zintzo interpretatu da baina aipua ez da zuzen idatzi eta erreferentzia bibliografikorik ez da sartu.

4 parafrasia:
Egokia da.
Jatorrizko ideia zintzo txertatu da eta iturrien aipuak eta erreferentzia bibliografikoa egoki sartu dira.

Zein da zein?

Autore batek esandakoak txertatzeko bi modu:

- Autorea lehenesten den modua
- Informazioa lehenesten den modua

A

- Ikasleek irakurtzen duten horri buruz beren egunerokoan idazteko ohiturak irakurritakoa berehala ez ahazten laguntzen duela erakutsi dute hizkuntzalaritza aplikatuko hainbat ikerketak (Dunkel eta Davy, 1989; Chaudron, Loschky eta Cook, 2003).

- Gai bati buruz zerbait ekoitzi ahal izateko aurretik gai horri buruzko kontzeptuak ulertu izana ezinbestekoa denean, nazioartetik unibertsitatera etorritako ikasleen frustrazioak gora egiten du (Leki, 2001; Liu, 2013; Morita, 2014).

- Cutrone-k (2005) bere ikerketan ikusi zuen ingelesa ikasten ari ziren Japoniako ikasleen motibazioa igo egiten zela sare sozialetan hizkuntza horretan hitz egiten duten lagunak egin ezkero.


- Read-en (2002) ikerketak 0-2 urteko haurren komunikazio gaitasunei erreparatu zien.

- Miller (2014) izan zen Lehen Hezkuntzako haurrekin erabilitako metodologiak Haur Hezkuntzako haurrekin erabiltzeak izan zitzakeen onurak aztertu zituen lehena.

i

Zer da *PARAFRASIA*?

-- BESTE PERTSONA BATEK EKOITZITAKO TESTU BAT GURE HITZAK ERABILIZ ERREPIKATZEA, AUTOREAREN JATORRIZKO IDEIA ALDATU GABE.



Parafraseatutako paragrafo hauek egokiak al dira? Zergatik?

1. adierazi	31. erregutu	61. iritzitzat hartu
2. aditzera eman	32. errepikatu	62. iritzitzat jo
3. agertu	33. esan	63. itaundu
4. agerian jarri	34. eskatu	64. izendatu
5. aholkatu	35. espezifikatu	65. jakinarazi
6. aintzakotzat hartu	36. esplikatu	66. jakinaren gainean jarri
7. aintzatetsi	37. eutsi	67. kexatu
8. aitortu	38. ezagutu	68. komentatu
9. aldarri egin	39. ezagutzera eman	69. komunikatu
10. aldarrikatu	40. finkatu	70. kontatu
11. antzeman	41. galdegin	71. kontsideratu
12. arakatu	42. galdera egin	72. lagundu
13. argitu	43. galdetu	73. markatu
14. azaldu	44. gogoan hartu	74. miatu
15. azpimarratu	45. gomendatu	75. mugatu
16. aztertu	46. haizatu	76. nabarmendu
17. babestu	47. hausnartu	77. ñabartu
18. baietsi	48. hautatu	78. ohartarazi
19. baieztatu	49. helarazi	79. onartu
20. bat etorri	50. idatzi	80. pentsatu
21. berretsi	51. igarri	81. proposatu
22. berri eman	52. igorri	82. protestatu
23. berronetsi	53. ihardetsi	83. seinalatu
24. bidali	54. ikuskatu	84. sendotu
25. defendatu	55. indartu	85. suposatu
26. deskribatu	56. informatu	86. transmititu
27. egiaztatu	57. iradoki	87. txalotu
28. erakutsi	58. iragarri	88. ukatu
29. erantsi	59. iraunarazi	89. uste izan
30. erantzun	60. iritzitzat eduki	90. zehaztu
		91. ...

Aditzen ñabardurak

Aditza
=
Autorearen jarrera

(distantzia kritikoa, zalantza, ziurtasuna...)

Zein aditz dira indartsuak?
Zein malguagoak?
Zein neutralak?


Zeharkako aipuetan erabilitako aditzen ñabardurak

Zeharkako aipuak egiteko aditzak

Ingelesez (reporting verbs): suggest, contend, argue, insist, stres, warn, dispute, find, demonstrate, propose, show, explain, point out, report, focus on, describe, note, analyse, discuss, provide, say, claim, think, suppose, speculate, admit, examine, investigate, outline, note...

Gaztelaniaz (verbos dicendi, declarativos o del habla): aclarar, aconsejar, admitir, afirmar, añadir, apuntar, asegurar, aseverar, avisar, clamar, comentar, comunicar, concretar, confesar, confirmar, considerar, contar, contestar, decir, declarar, demandar, describir, destacar, enfatizar, escribir, especificar, exclamar, explicar, exponer, expresar, increpar, indicar, informar, insinuar, insistir, manifestar, , matizar, mencionar, negar, notificar, opinar, pedir, precisar, pregonar, preguntar, proclamar, proponer, protestar, puntualizar, quejarse, querer decir, ratificar, recalcar, reconocer, recomendar, reiterar, replicar, responder, revelar, transmitir, señalar, sostener, subrayar, sugerir, suplicar, suponer.

Euskaraz?



EUSKARAZKO ADITZEN TXAPELKETA

- Aditz zerrenda
- Taldeka
- 5’

Classroom timers: